



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: HARPA

2022-03-12

Nori zuzenduak?

Graduko Harpa Interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 7an** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Harpa interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ICART, Christine

Bérengère Sardin eta Julien Marcou irakasleek ere parte-hartuko dute.

9:30 Bilera informatiboa: bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa plana, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-11:45 Irakasgai ezberdinak aurkeztuko dira: harpa erreperitorioa, orkestra erreperitorioa, erreperitazioa, baxu jarraia, transkripzioa... Christine Icart, Julien Marcou eta Bérengère Sardin irakasleekin.

12:00-12:45 Musikeneren harpa ikasleen eskutik entzunaldia

14:00-18:00 Christine Icart espezialitateko irakasleek eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat.

18:00 Jardunaldiaren amaiera

Harpa jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin:
mmoll@musikene.eus